Erabilera arian-arian hazten joan da proiektuaren hasieratik. Grafiko honetan ikus daiteke Itzuliren erabilera 2019ko urritik 2020ko urtarrilera; lerro urdina gaztelaniatik euskarara, eta laranja, berriz, euskaratik gaztelaniara. Eskaeren kopurua astero hazten ari da, nahiz eta marketin-kanpaina espezifikorik ez den egin.



## Enplegua eta Gizarte Politikak

### Gazte-txartelak kudeatzeko sistema berria (GAZTE TXARTELA).

Administrazioaren ekimenez, modu proaktiboan, eskatu beharrik izan gabe bidaliko zaie Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteria Zuzendaritzak kudeatzen duen Gazte Txartela eskakizunak betetzen dituzten herritarrei. Euskadiko Gazte Txartela Europan homologatua da, eta European Youth Card Association (EYCA) Europako Txartel Gazteen Elkartearen barruan dago.

Hauk izan dira proiektuaren funtsezko elementuak:

- 2019ko azaroan, Eustatek Euskadiko gazte guztien datuak kargatu zituen (14-30 urte), eta Gazte Txartelaren bidalketa masibo bat egin zen (298.289 txartel). Gaur egungo prestazioez eta deskontuez gainera, Gazte Txartela berriak AterpeKide Gaztearen Txartela ere badakar, zeinaren bidez nazioarteko sare zabal bat balia baitaiteke.
- Data horretatik aurrera, ezabatu egin dira Gazte Txartelen jaulkipen-tasak.
- Gazteria Zuzendaritzak gazteek eskatu gabe bidalitako txartel hori martxan jartzeko, gazte bakoitzak aktibatu egin behar du Gazteakera webgunearen bidez, eta bertan bete behar ditu identifikazio-datuak. Halaber, txartelaren QR kodea eskaneatuz, aktibazioa zuzenean sar daiteke, Eustaten datuak aurrez kargatuta baitaude.
- Sistema berri horren bidez, Gazte Txartelen urteko bidalketa masibo bat egingo da 14 urte betetzen dituzten gazte guztientzat (20.000 txartel inguru urtean).




## 2019-2021 aldirako Sistemen Plana

Urteko lehen hiruhilekoan, hiru urteko plan bat zehaztu da, barneko informazio-sistemak EJIEk Konbergentzia Plana dela-eta aurrez aurre dituen erronka berrietara egokitzeko.

Hona hemen proiektuen bolumena:

- 8** Ezarpen berri
- 3** Hobekuntza
- 6** Aholkularitza



# INFORMATIKA KORPORATIBOAREN ARLOA



# LANKIDETZA-ERREMINTEN EZARPENA

## 1. fasea: Windows 10era migratzea

2019an, Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatibora konektatutako lanpostu guztien oinarriko softwarea migratuz joan gara (guztien %85 egin da dagoeneko).

Oinarriko software berria honako hauek osatzen dute: Windows 10 sistema eragilea, MS Office 2016 eta Libre Office software ofimatikoak, MS Edge eta MS Explorer II nabigatzaileak, eta Bit Defender antibirus-softwarea.


## 2. fasea: Lankidetzta-erremintak ezartzea (Microsoft Office365)

# PRESTAKUNTZA

2.000 pertsona  
(erabiltzaile guztien % 30)

2019ko maiatzetik 2020ko azkenera  
gaztelaniaz eta euskaraz

Bilbo · Donostia · Vitoria-Gasteiz



## ADITUAK

10 ORDU

LIZENTZIAMENDUAK:

OneDrive  
Office 365 ProPlus  
Share Point taldeak  
eta guneak  
sortzea

## OROKORRAK

5 ORDU

LIZENTZIAMENDUAK:

OneDrive  
Office 365 ProPlus



# SOFTWARE AKTIBOAK KUDEATZEA

Azaroan, prozesu korporatibo berri bat ezarri zen software aktiboak kudeatzeko.

Prozesu horrek 4 jarduera biltzen ditu:

- Software-premiak kudeatzea.
- Betetzea-mailaren kudeaketa.
- Auditoretzak kudeatzea.
- Softwarea erretiratzeko kudeaketak.

Hauek izan dira bildu diren lehendabiziko fabrikatzaileak eta haiekin loturiko softwareak: Oracle, Microsoft (Data Center zatian), VMWare, BMC (Remedy zatian), Liferay eta ESRI.

Era berean, langileak kontzientziatzeko tailerrak ere prestatu dira.

# IT KUDEAKETA-ERREMINTA EZARTZEA

2018. urtearen amaieran, ServiceNow tresna hautatu zen konbergentzia-ingurunerako kudeaketa-tresna gisa (Batera).

2019an, ITIL prozesuen arduradunekin eta zerbitzu-arduradunekin lan egin da, bi xede hartuta: alde batetik, zerbitzu horien funtzionaltasunak definitzea, eta, bestetik, tresnan egokitze prozesuek egiten dituzten jarduerak egokitzea, zerbitzuetarako zehaztutako helburuak betetze aldera.

Hosting eta IP telefoniako zerbitzuak ezarri dira.

# ZAINZA TEKNOLOGIKOA

## Prest egotea

Horixe da erreakzionatzeko modurik onena. Prestatzeko jarduerak berak hain beharrezkoa den proaktibitatea sortzen du produkzio-prozesuak dituzten erakundeetan. Gure kasuan, Zaintza Teknologikoa erakundeak lekua izan dezaketen teknologiak ebaluatzeko jarduera da, horretarako kontzeptu-probak eginez. 2019an, honako teknologia hauek ebaluatu dira: web-aplikazio progresiboak (pwa), mugikorretarako eta mahaigainerako soluzio gisa; software-errobotizazioko soluzioak (rpa); Europa iparraldeko elkarreragingarritasunari buruzko azterketa (xroad); enpleguaren rolarri aplikatutako gamifikazioa; lankidetzaren proiektuei aplikatutako blockchainera; eta telefonia-operadoreen datuak erabiltzea alerta-egoeretan.

## Jakintza partekatzea

Aurten, unibertsitateekin parte hartu dugu Deustuko Unibertsitateko Big Data masterrean, Mondragon Unibertsitateko Informatika Graduan eta Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetan. Saiok egin dira Databeers, Librecon, ITSMF eta tankerako foro teknikoetan, egindako ekimenei eta proiektuei buruz. Gizarte-ari buruzko zatian, zentro jakin batzuekin lankidetzan jarraitzen da, adingabeekin programazio-kontzeptuak helarazteko eta etorkizuneko profesionalen balibideak emateko. Euskadiko teknologia-adituen mundu profesionalari dagokionez, administrazio publikoaren ekosisteman lan egiten duten 200 profesional baino gehiago biltzea lortu da.

## Aplikazio erreala

Gure ustez, teknologia aplikatuz hobetzeko aukera da berrikuntza. Horregatik, sailekin edo erakundeekin lankidetzan aritzen gara, bai teknikoki, bai finantzarioki, ebaluatzen dauden teknologia interesgarriak aplikatzeko. Aurten, aipatzekoak dira halaber, honako lan hauek: sare neuronalen erabilera, itzultzaile neuronal bat sortzeko (Itzuli) Jaurlaritzaren itzulpen-zerbitzuko datuak baliatuz; Big Data teknologiararen erabilera, datuak masiboki ustiatu ahal izateko, bai LANBIDEn, bai Osakidetzan; eta Gauzen Internetera (IoT) hurbiltzea hondakinen kudeaketako eta telekudeaketako eszenatokiekin, Donostian eta Gasteizen betetze-sentsoreak zabalduz.

## ITZULI

Sare neuronalak datuetan oinarrituta ikasteko/orokortzeko aukera ematen duten adimen artifizialeko teknikak dira. Proiektuan, IVAPen itzulpen-memoriak (gaztelaniazko testua < - >euskarazko testua) eta datu publikoak (Wikipedia, prentsa-albisteak, liburak...) erabili dira itzulpen-eredu bat trebatzeko. Eredu trebatu hori web-aplikazio batetik eta aplikazio mugikor batetik erabiltzen da proiektuan. Hemen eskura daiteke produktu horren emaitza: <https://www.euskadi.eus/itzuli>.

## BIG DATA


Hadoop eta tankera horretako teknologiek datuen gainean prozesu masiboak abiarazteko aukera ematen dute, datu-base erlazional bat baino askoz eskalagarritasun-maila handiagoarekin. Proiektuan Lanbideren eskaera-datuarekin lan egin da, etorkizuneko enplegarritasunaren proiektio-proba bat egiteko. Osakidetzaren kasuan, anonimizatutako datuekin lan egin da, diagnostiko-erremintekin saiakuntzak egiteko.

## IOT

Elementuak sensorizatzea guztiaren hasiera baino ez da. Beharrezkoa da datu horiek fidagarritasunez bidaltzea eta bermez biltegitzea. Proiektuan NBloT teknologia-sentsoreekin lan egin da: garraioa telefonia-operadore bati kontratatzen zaio, hala, garraio-sare pribatu bat eduki ahal izateko. Datuak mqtt estandarri erabiliz jasotzen dira, eta Sofia plataforman biltegitzen. Plataforma horretan egiten dira kudeaketa-panelak.



Lan-giroari buruzko 2019ko inkesta: %66ko partaidetza-indizea izan da; gogobetetze-maila orokorrari dagokionez, 7,37 izan da, 1etik 10era bitarteko eskalan.



# ADMINISTRAZIO ETA LANGILERIAREN

# ARLOA



2019an, zenbait plan eta jarduera garatu dira 2020 Plan Estrategikoko pertsonetara bideratutako ardatzean jasotako helburuak zabaltzeko, Berrikuntza eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemako pertsonen kudeaketa-prozesuan eta Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizate Sistemaren ezarritako etengabeko hobekuntza-politikaren esparruan; haiei esker, langileen gaikuntza hobetu da eta parte-hartzea eta kontsulta bultzatu dira, guztia ere ingurune jasangarri, seguru eta osasungarri batean eta genero-ikuspegia kontuan hartuz.

## Komunikazio-plana

Plan horretan planifikatutako jardueren % 94,61 bete da.

## Urteko prestakuntza-plana

- 930 parte-hartzaile (%46,34 emakumeak eta %53,66 gizonak).
- 47 prestakuntza-ekintza.
- Batez besteko prestakuntza-orduak pertsonako: 28,46 ordu.
- Prestakuntza-orduak orotara: 5.612 ordu (%47,41 emakumeek eta %52,59 gizonak).

FUNDAEK 2019ko prestakuntza-planari emandako laguntza posible guztiak lortu dira, prestakuntzaren arloko kreditu bat osorik berreskuratuta 35.633,81 €-ko zenbatekoarekin, baita laguntza osagarriak ere hura finantzatzeko, HOBETUZek emanda.

## Jardunaren ebaluazio-plana

24 pertsona (13 emakume eta 11 gizon); horrek esan nahi du ebaluatutako langileen %13 lanbide-mailaz igo direla prozesu horretan, ordainsari-maila edo lanbide-profila aldatu izanaren ondorioz.

## Akordioak Enpresa Batzordearekin

2019an, akordio hauek lortu dira Zuzendaritzaren eta Enpresa Batzordearen artean:

- Kontziliario-neurriak lortzea, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan hartutako erabakiekin bat.
- Lanaldiaren erregistroarekin eta ordainsarien igoerekin loturik eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiekin bat, urtariletik ekainera bitartean %2,25eko igoera erabaki da, 2018ko abenduaren 31ko ordainsariak oinarri hartuta, eta uztailetik aurrera, berriz, %0,25eko igoera osagarria.
- Enpresak Itzarriri egindako ekarpenei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiekin bat, ekarpen horiek %1,5ekoak izango dira 2019ko abendutik aurrera.

## Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizate Plana

Laneko segurtasun, osasun eta ongizatearen arloan 2019rako aurreikusitako 38 jardueretatik 33 egin dira. Besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira:

- ISO45001 arauaren ziurtagiria lortzea.
- Eraikinaren lehen solairuko eskuinaldea birmoldatzea.
- Renting-ibilgailuen flota berritzea, segurtasunean eta ingurumen-irizpideetan hobekuntzak eginez.
- Instalazioak modernizatzea: makinak, igogailuak eta suteak kontrolatzeko zentrala.
- Osasuna sustatzeko programa berriak garatzea, arrisku kardiobaskularrak, lesio muskuloeskeletikoak eta osasun mentala prebenitzearen alorrean; eta horietan 52 lagunek parte hartu dute.
- Laneko arriskuen ebaluazioa berrikustea.
- 2017ko arrisku psikosozialen inkestaren ondoriozko prebentzio-zirkuluaren ondoriozko hobekuntza-planaren %81,58 gauzatzea.
- Langileei prestakuntza ematea jazarpenaren aurkako protokolo berriei eta gatazkak konpontzeko prozedurari buruz, eta langile guztiei berriaz onar ditzaten eskatzea.

Gainera, EJIEk osasuna eta ongizatea sustatzeko jardunbide egokien aintzatespena jaso du, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak (GSIN) emana, Laneko Osasuna Sustatzeko Europako Sarearekin (ENWHP) lankidetzan.

## Harrera-plana

2019an plantillan sartutako hiru pertsonentzat aktibatu da (guztiak emakumeak).

## Berdintasunaren alorreko jarduera-plana

IV. Berdintasun Planaren jarraipenaren arabera, planaren betetze-maila %91,38 zen 2019ko abenduaren 31n. 2019rako planifikatutako 17 jardueretatik 14 egin dira, eta honako hauek nabarmendu behar dira, besteak beste:

- Berdintasun Batzordea sortzea, berdintasuna hobetzeko taldearen tokian.
- Kudeaketa-sistemen dokumentazioan hizkuntzaren erabilera berrikustea eta hobekuntza-plan bat ezartzea, mantentze-lanetan parte hartzen duten langileei horri buruzko prestakuntza emanez.
- EJIEren jazarpenaren aurkako protokoloa kontratazio-pleguetan txertatzea, EJIEren zuzendaritza-ahala iristen den eraikinetan.
- EJIEk informazio-sistemak garatzeko eta mantentzeko ematen dituen zerbitzuetan berdintasun-irizpideak sartzeko jardueren eta prestakuntza-plan bat garatzea, Eusko Jaurlaritzak zehaztutako jarraibideen arabera.
- Berdintasunean gauzatutako antolamendu-kulturari buruzko azterketa bat egitea, BAI SAREAK horretarako diseinatutako erremintatik abiatuturik.

2019an, EJIEk modu aktiboan parte hartu du BAI SAREAn, baita Emakundek antolatutako foroan ere.



**BAI SARE**aren 3. batzarrean, EJIEk jardunbide egoki bat aurkeztu zuen lan-osasunean genero-ikuspegia txertatzearrekin loturik; jardunbide horrek eta beste bik aintzatespena jaso zuten, esandako sare hori osatzen duten 24 erakunde eta enpresak aurkeztutako 32 praktikaren baino gehiagoren artean.



2019an, honako  
eskari hau ase  
dugu

**ZERBITZU  
BERRIAK**  
29  
ERAKUNDE  
PUBLIKOTAN

17  
ERAKUNDE  
**BERRI**  
EJIERENTZAT

# NEGOZIO GARAPENAREN ARLOA



## NEGOZIO GARAPENEN SAILAREN jarduerak 2019an

- EJIek Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskadiko Sektore Publikoko erakundeekin duen harreman-eredua definitzea.
- Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologietako Zerbitzuen Katalogoa eskaintzea.
- Zerbitzuetarako akordioak ezartzea, porfolioaren zerbitzu bakoitzaren premia orokorre egokituta.
- Bezero bakoitzaren behar espezifikoak erantzutea, EJIeren gaitasunak martxan ipiniz, premia horiek baldintza horietan hornitzeko.
- Erabiltzaileekin harremanak izaten jarraitzea, gailuak eta zerbitzuak ematea, haien segurtasuna eta sarbide baimenduak kudeatzea, haien eskaerei erantzutea eta kontsultak eta gorabeherak konpontzea.
- Erabiltzaileekin loturiko lanpostuetako zerbitzuak kudeatzea eta optimizatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko edo erakunde edo entitate sektore bakoitzeko operadore liderrei eskatzen dizkien telekomunikazio-zerbitzuak diseinatzea, haien garapena sustatzea eta prestazioa bermatzea.

Telefonia finkoaren, komunikazio mugikorren, SMS mezularitzaren eta Interneten eremuetan telekomunikazio-kontratuak kudeaturik, EJIek ingurune horiei lotutako zerbitzuak garatu ditu, eta bezeroen eskakizunen arabera ezarri ditu zerbitzuak.

Komunikazio finkoetarako, kudeaketa- eta kontingentzia-sare berriak sortu ditu.

Komunikazio mugikorretarako, mugikortasun korporatiboa kudeatzeko soluzio aurreratu bat diseinatu eta garatu du, segurtasun-sistema batekin osatuta; gainera, lanpostuaren kontingentzia-eredu bat ezarri du terminal mugikorren bidez.

Mezularitzarako, hainbat kanaletako zerbitzuko bilakaera-eredua diseinatu du, eta, SMSaz gainera, eboluzionatutako teknologiak eta sare sozialak ere biltzen ditu.

Interneten, segurtasun-bermeak indartu ditu, erasoak areagotzen ari direla ikusirik.

## TELEKOMUNIKAZIOEN KUDEAKETA kopurutan

Euskadiko 30 erakunde eta entitate publiko, 90.000 erabiltzaileengana iritsiz

2.000 lotura-lerro.

16.000 linea mugikor.

12.000 gailu mugikor.

1.000 lotura-lerro.

7.000 gailu mugikor kudeaketa aurreratuarekin eta autohornidurarekin.

2.000 gailu mugikor, segurtasun aurreratuko sistemetan bildurik.

40.000 linea telefono finkoan.

8.000 lotura-kanal.

12.000.000 SMS bidali dira urtean.

26 Gbps-ko Interneteko konexioa (12 simetriko bermatu eta 14 asimetriko).



## ERABILTZAILEEN JARDUTEKO esparruak

- Ekipamendua hornitzea, bilakaera teknologikoak erabiltzaileei eskaintzen dizkien gailuen eskaintza zabalduz eta horiek erabiltzeko baldintzak hobetuz.
- Erabiltzailearen Arreta Zentroa, erabiltzaileen arreta-eskaera zentralizatuz, autozerbitzuan eta automatizazioan aurrerapenak emanez, eta, ondorioz, denboran konpontzeko gaitasuna eta eraginkortasuna hobetuz.
- Segurtasuna eta irisgarritasuna, prozedura operatiboagoak eta seguruagoak ezarri, gero eta handiagoa baita erabiltzaileen babes-bermeen eta eskuratzen dituzten informazio- eta komunikazio-sistemen eskaria.
- Inprimaketa kudeatzea, paperarekin lotutako gailuen sorta zabalduz eta aurrera eginez erabileraren arabera oraineko inprimaketa-ereduaren diseinuan.
- Gertakari larriak kudeatzea, kritikotasun- edo urgentzia-maila handiarekin jardura berezia behar duten ekitaldiak aktibatuz, koordinatuz, jarraipena egiteko, informatzeko eta ixteko.
- Arreta pertsonalizatua eta aurrez aurrekoa, ingurune sentikorretan premia kritikoak konpontzeko soluzio espezifikoekin.

## ERABILTZAILEEN ARRETA kopurutan

Erabiltzailearen Arreta Zentroak 190.000 dei kudeatu ditu.

Erabiltzailearen Arreta Zentroak 145.000 txartel kudeatu ditu.

Erabiltzailearen Arreta Zentroak 260.000 dei kudeatu ditu, beste erakunde batzuei erantzunez.

Gorabeheren % 65 lehen mailan konpondu dira.


82.000 ekipamendu mikroinformatiko aktibo kudeatu dira.

11.600 eskaera egin dira erabiltzaileak kudeatzeko.

4.000 enpresa artatu dira kontratazio publikoko prozesuetan.

2019an, 29 erakunde publikotan estali dugu zerbitzu berrien eskaria, eta horietatik 17 lehen zerbitzurik ematen ez genien erakundeak dira.

Inkestek emandako urteko balioespenak jasotzen du EJIeren jardueraren emaitza, bezeroekin lerrokatzeari dagokionez: 10etik 7,4 puntuko kalifikazioa eskuratu du EJIek emandako zerbitzuetan.



#### KUDEAKETA-DATUAK (EJIE+Batera+Osakidetza+Justizia)

	Aldaketak	Arazoak	Egitekoak	Gorabeherak
GUZTIRA	14.412	736	94.718	160.735

#### AKTIBOEN DATUAK (EJIE+Batera+Osakidetza+Justizia)

	Aplikazioak	Zerbitzariak	Postuak (PCak)	Erabiltzaileak
GUZTIRA	2.958	10.403	118.402	132.467

# AZPIEGITUREN ETA ERAGIKETEN ARLOA

## KONBERGENTZIA-PROZESUA (IKT)

Gobernu Kontseiluak, 2015eko uztailaren 27an, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko konbergentzia-prozesua izeneko abian jartzeko ekimena onartu zuen.

Ekimen horri «BATERA» izena eman zioten, eta haren helburua IKT arloko konbergentzia-prozesu bat gauzatea da, instalazioetara eta haiekin zerikusia duten beste elementu batzuetara mugatua (besteak beste, azpiegiturak, komunikazioak, lanpostua eta zerbitzu korporatibo bateratuak –ICPS–) Era berean, iritzi zioten EJIE izan dela erakunderik egokiena unean-unean erabakitzeko zer eredu jarraitu behar den BATERA ekimenaren zerbitzuak emateko.



Garatzen ari garen bateratze-prozesua hiru fase nagusitan egingo da.

## GOBERNANTZA-EREDUA (AKLZ)

IKT-ICPS bateratze-eredu berria ezartzeko laneko metodologia eta gobernantza 4 lantalde heterogeneotan egituratzen da: datuak prozesatzeko zentroyen Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostuak eta Zerbitzu Korporatiboak.



## AZPIEGITURAK

Konbergentzia katalogoko zerbitzuak sostengatzen dituen Datu Zentroak bi kokaleku ditu: nagusia Araban eta bigarrena Bizkaian, babes gisa.

### Proiektu estrategikoak

- **Osakidetzaren DPZ itxi eta EJIEn zerbitzu nagusietara eramatea.**

Konbergentziak ezarritako helburuei jarraituz, 2019an Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren instalazioetan kokatutako DPZ itxi eta lekuz aldatzea erabaki zen.

- **Bateratze proiektuan datuak prozesatzeko zentroaren heldutasun eta Cloud IaaS zerbitzua.**

NJPa ezartzeko egitekoan, failover mekanismoen automatizazioan eta operazionalizazioan sakondu da, ezbeharren bat gertatuz gero ere.

Berririo definitu da biltegitratze-estrategia nagusia hiperkonbergentziako ikuspegi mistoa eta ingurunearen araberako biltegitratze-arraya duten zerbitzarietarako, guztiak ere all-flash erakoak, eta areagotu egin da ingurunearen ahalmena, hurrengo ekitaldian finkapen-migrazio masiboak xurgatu ahal izateko.

Horretaz gainera, sarea segmentatzeko eredu bat ezarri da Baterarako, eskuordetze- eta autozerbitzu-gaitasunekin.

### Proiektu ez-estrategikoak

- **Baterako azpiegitura-gorabeherak kudeatzea VRops erremintan.**

Eragiketen arloak erraz ikusteko/ulertzeko panelak garatu ditu Baterako azpiegiturarako gorabeherak kudeatzeko eta IaaS zerbitzuarekin lotutako gorabeherak kudeatzeko.

- **Ustiapen-zerbitzua optimizatzea.**

Ustiapena ezagutzeko datu-base bat ezarri da, zeinean jasotzen baita bateratze-zerbitzuei eta bezeroen zerbitzu kritikoei buruzko informazio guztia, eragiketen gorabeheren aurrean jarduteko informazioa estandarizatzeko.

Baterako plangintza-plataforma baten interfaze bisuala modelatu da, ZBat eta AWX gainean txertatuta.

## KOMUNIKAZIOAK

### Proiektu estrategikoak

- **Bateraren IP telefonia.**

IP telefoniako soluzio bat hedatu da, zerbitzua gobernu-erakunde guztiei eskaintzea ahalbidetzen duena, egungo egoerak kontuan hartuta eta, hala, ahalik eta elkarreragingarritasun handiena bermatzeko.

- **Bideokonferentzia eta bideo-kudeaketa.**

Bideokonferentziako soluzio bat hedatu da, zerbitzua gobernu-erakunde guztiei eskaintzeko aukera ematen duena, bi zati desberdinekin: bideokonferentzia hutsa eta bideo-kudeaketa.

Bideokonferentziak kalitate handiko ikus-entzunezko komunikazioak ahalbidetzen ditu erakunde bereko edo kanpoko talde profesionalen artean; bideo-kudeaketak irtenbide profesional bat eskaintzen du bideokonferentzien, prestakuntzen edo bestelako bideo-moten streaming, grabazio eta eduki-kudeaketarako.

- **Nabigazio segurua.**

Interneten nabigatzeko soluzio bat hedatu da, zerbitzua Jaurlaritzako erakunde guztiei eskaintzeko aukera ematen duena. Azpiegiturak, erakundeak partekatuta eta Interneterako eskuragarritasun handian, erabiltzaile-nabigazio kontrolatua eta segurua eskaintzen du, beharren arabera. Aldi berean, Interneteko sarbidea kontrolatzen du, eta emariak bermatzen ditu Bateran zabalduetako zerbitzuetarako, banda-zabalerako kudeaketa aurreratu baten bidez.

- **Wi-Fi Hezkuntza.**

WLAN azpiegitura hedatzen jarraitu dugu Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. WLAN sarearen azpiegitura berria eskuratzea, konfiguratzea, instalatzea, erabiltzea, kudeatzea eta monitorizatzea, Lehen Hezkuntzako 387 ikastetxe ingurutan.

## Proiektu ez-estrategikoak

- **Justiziako orekatzaileen migrazioa (F5 - A10).**
- **Gurutzetako ospitaleko LANa migratzea.**
- **Osakidetzarako WAFa martxan ipintzea Bateran.**
- **Lanpostuaren babesa zabaltzea.**
- **NAC (pilotua).**
- **Segurtasun-ikuskaritzak:** Batera perimetroan, Osakidetzeta perimetroan Osabide Integra aplikazioaren analisia eta Batera ToIP segurtasuna.
- **Batera Mobile.**
- **Justiziako LANa migratzea Azpeitian.**
- **Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren prozesatze-zentroa ixtea.**
- **Onkologikoa Osakidetzaren sarean txertatzea.**
- **Herritarrarentzako Wi-Fi askeko zerbitzuko aholkularitza.**



## LANPOSTUA

### Proiektu estrategikoak

- **Osakidetzak Baterako lanpostu kudeatua hartzea.**  
Proiektu horren barruan sartzen da Osakidetzaren sare korporatiboko orde-nagailu-parke osoa berritzea (24.000 guztira).
- **Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboak Baterako lanpostu kudeatua hartzea.**  
64 biteko Windows 10 sistema eragilea eta Office2016 dituzten 8.000 PC ingururen bilakera-proiektua, kudeaketa-eredu berri baten pean.
- **Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboaren aldaketa-kudeaketa eta Office365 zerbitzuetara migratzea.**  
Aurrez aurreko prestakuntzen bidez, 6.000 pertsona inguruk, hainbat erabiltzaile-profiletan sailkatuz, Microsoften onlineko zerbitzuak migratu ahal izan dituzte.
- **Lekuona zerbitzua ezartzea.**  
Aplikazioak eta mahaigainak birtualizatzeko eta gailu mugikorrek kudeatzeko zerbitzua hedatzea eta produkzioan jartzea.



# ZERBITZU KORPORATIBOAK

## Proiektu estrategikoak

- **Hosting zerbitzua ezartzea.**

Azpiegiturak eta aplikazioak Bateraren hodeira biltzeko, eramateko eta kudeatzeko zerbitzua da. Zerbitzu horrek modu malguan estaltzen du aplikazioen, konputazioaren, biltegiatzearen, sareen eta kontingentzien kudeaketa teknologiko globala, eta bizi-ziklo osoa hartzen du barnean, hala nola Bateran integratu beharreko sistemak identifikatzea, hodeirako definitzea eta trantsizioa egitea eta, integratu ondoren, operatzea eta euskarria eskaintzea.

- **PaaS BigData zerbitzua ezartzea.**

Middleware multi-tenant bat ezarri da on-premise ingurune batean, zeinean bezeroen negozio-aplikazioak edo azken erabiltzaileen zuzeneko sarbideak oinarritzen baitira.

Hainbat zerbitzu xurgatzeko, ustiatzeko, prozesatzeko eta deskargatzeko, zerbitzu batzuetarako eta besteetarako (datuaren tipologiaren eta jatorriaren arabera). Hor sartzen dira: Fitxategiak, taulak, gertaerak eta bilaketa.



## Proiektu ez-estragikoak

- **Kargen migrazio masiboa egiteko metodo bat ezartzea.**

Legacy ingurunetik Baterako kontsolidazio-ingurunera Administrazio Orokorreko tenanterako, "Lift & Optimize" ikuspegiarekin.

- **Linux plataforma eraikitzea.**

- **DNS Batera soluzioa eraikitzea.**

- **Edukiztaileen soluzioa eraikitzea.**

- **Apache plataforma eraikitzea.**

- **Weblogic plataforma eraikitzea.**

- **IIS plataforma eraikitzea.**

- **Tomcat plataforma eraikitzea.**

- **Oracle datu baseen plataforma eraikitzea: Single Instance eta RAC.**

- **SQL Server plataforma eraikitzea: Single Instance eta Always ON.**

- **Enterprise Manager plataforma eraikitzea.**

- **Enterprise User Security eraikitzea.**



Ejie

# ALDERDI EKONOMIKO GARRANTZITSUAK



## EJIE bitarteko propio pertsonatuztat hartzen da, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioaren arabera.

2019ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak edo hark kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek emaniko egitekoen %99 gauzatu ditu sozietateak. Azken hiru ekitaldietako batez bestekoa %99koa izan da.

EJIE nabarmen ari da salmenta-zifrak handitzen (2019an %16 baino gehiago, 2018. urtearekin alderatuta), EAEko informatika-zerbitzuak bateratzeko prozesuan ari baita buru-belarri. Hori guztia, lortutako diru-sarrerak errentagarri bihurtzeko helburu nagusiari eutsiz eta aurrekontu-oreka mantenduz.

### EJIEren magnitude nagusiak 2017 /2018 /2019 (milioi euro)

	2017	2018	2019
<b>Salmentak</b>	<b>91,2</b>	<b>107,1</b>	<b>124,4</b>
<b>Beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>2,6</b>	<b>3,6</b>	<b>3,6</b>
<b>Gastuak</b>	<b>93,8</b>	<b>110,7</b>	<b>128</b>
Zerbitzu informatikoen erosketa	54,1	66,9	76,4
Langile-gastuak	13,4	13,6	13,5
Ustiapeneko beste gastu batzuk	21,6	24,2	31,6
Amortizazioak	4,7	6	6,5
<b>Aktiboa orotara</b>	<b>57,3</b>	<b>60</b>	<b>64,3</b>
<b>Ibilgetuak</b>	<b>14,7</b>	<b>14,4</b>	<b>13,5</b>
Ukiezina (lizentziak)	2,5	3,8	2,9
Ekipamendu informatikoak (zerbitzariak)	8,7	7,5	7,5
Ibilgetutako gainerakoa	3,5	3,1	3,1
<b>Berezko funtsak</b>	<b>15,5</b>	<b>15,5</b>	<b>15,5</b>



Eusko Jaurlaritzaren  
Informatika Elkartea

Sociedad Informática  
del Gobierno Vasco

*Euskadi,  
auzolana*



**EJIE S.A.**  
Avenida del Mediterraneo 14  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)

945 017 300  
ejie@ejie.us  
[www.ejie.us](http://www.ejie.us)